

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Turismoko bulegoek aurtengo Aste Santuan 2014an baino ia % 25 arreta gehiago egin dituzte

17.012 informazio-eskaera baino gehiago jaso dituzte; iaz, 13.763 kontsulta egin ziren

Viernes, 10 de abril de 2015

[Nafarroako Gobernuaren sareko turismo-bulegoek](#) 17.099 informazio-eskaerari arreta eman diete ostegun santu eta pazko-astelehen artean, biak barne. Hau da 2014n baino % 24,24 gehiago; iaz 13.763 egin ziren.

Zifra horrek egun horietan turistei eta bisitariei eskainitako arreta-kopurua jasotzen du, telefonoz nahiz Internetez egindakoak, beren jatorritik (87), nahiz helmugan egindakoak (17.012) Nafarroako Gobernu hamaika turismo-bulegoetan. 17.012 arreta horietatik, 16.206 Estatuko turistek egin zituzten eta 893, atzerrikoek.

Egunen arabera, ostegun santuan egindako arreta-kopurua nabarmendu behar da (4.578), bai eta larunbat santuan ere (4.394); Aste Santuko azken egunean, berriz, pazko-astelehenean, izan zen zifra txikiena (1.509), normala denez.

Estatuko informazio-eskaeren artean, ondorengoak azpimarratu behar dira: EAEkoak (4.088), Madrilgoak (2.561), Kataluniakoak (2.876), Gaztela eta Leongoak (912) eta Aragoikoak (837). Nafarrek beraiek egindako informazio-eskaerak rankingeko laugarren postuan daude (1.739).

Atzerriko turisten eskaerei dagokienez, turista frantsesena nagusitzen dira (229); haien atzetik datoz, ingelesak (123), alemanak (78), iparramerikarrak (54), eta australiarak (45).

Nafarroako Gobernu sareak honako leku hauetan ditu bulegoak: [Bertiz](#), [Estella-Lizarra](#), [Lekunberri](#), [Otsagabia](#), [Erriberri](#), [Orreaga-Roncesvalles](#), [Iruña](#), [Erronkari](#), [Zangoza](#) eta [Tuteran](#).



Tuterako turismo-bulegoa.